



**Helduak
Zabaltzen**



GIZARTE ZENTROAK ERALDATZEKO TRESNAK

JARRAIBIDEAK

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Nondik dator gida hau?

Eusko Jaurlaritzak eta Euskofederpenek bultzatutako ekimena da **Helduak Zabaltzen**, eta **adinekoen gizarte zentroen** eredua eraldatu eta egokitzeko eta digitalizazioan laguntzeko sortu da. Haren helburu nagusia da zentroak egungo eta etorkizuneko adinekoen beharretara egokitzea.

Proiektuak esperientzia pilotuak jarri ditu abian **hiri inguruneetan (Eibarren eta Erandion)** eta **landa inguruneetan (Kanpezun eta Arratzun)**, Euskadin adinekoen gizarte zentroen eredu berriak martxan jartzea helburu duen partaidetza prozesu bat aktibatzeko.

Gida hau tresna multzo baten barruan sartzen da; horien bidez, proiektuan zehar eskuratutako ezagutza partekatu eta aldaketarako gogoeta sustatu nahi da. Gidak gainerako tresnak erabiltzeko jarraibideak jasotzen ditu, gai multzoetan banatuta, adinekoen gizarte zentroen inguruko gogoetari ekiteko.

Zergatik eta zertarako sortu dira?

Berdinak dira gaur egungo adinekoen interesak eta premiak eta duela 30 urteko adinekoenak?

Berdinak dira herri eta hirietan adinekoentzat dauden aisialdirako eskaintza, baliabideak eta zerbitzuak eta duela 30 urtekoak?

Aldaketa eta joera horiei erantzuteko, behar-beharrezkoa da adinekoen gizarte zentroen eredua aldatzea, egungo errealitatera egokitzeko.

Material sorta hau adinekoen gizarte zentroeiei zeregin hauetan laguntzeko sortu da:

- 1 Zentroetan aldatu eta hobetu beharreko arloak detektatzea.
- 2 Udalerrietako adinekoen askotariko errealitate eta premiekin konektatzea.
- 3 Beste gizarte zentro batzuetan erroka horiei eman dizkieten erantzunak ezagutzea.
- 4 Gizarte zentroek egin beharreko aldaketak partaidetza prozesu baten bidez diseinatzea, ahots guztiak entzunez, egungo zein etorkizuneko adinekoen beharretara egokitzeko.

Hori guztia dela eta, tresna hauek sortu dira, **gizarte zentro bakoitzak errazago identifika ditzan bere etorkizuneko errokek eta ildoak, partaidetzaren bidez eta proiektu pilotuaren esperientzian oinarrituta.**

«Ez dugu
erantzunik; bidea
proposatzen dugu»



Nola erabili behar dira tresna hauek?

Lehen pausoa: elkartzea, taldea sortzea

Proposamena da **gizarte zentroaren iraunkortasuna eta hobekuntza bilatzeko interesa duten pertsonak talde bat osatzea, helburu horiek nola lortu elkarrekin hausnartzeko.**

Gomendagarria da taldekideak profil ezberdinetakoak izatea; hau da, desberdinak izatea gizarte zentroaren inguruko ikuspegiak, parte hartzeko moduak, eginkizunak eta harremanak. Horretarako, garrantzi handikoa da gizarte zentroko erabiltzaileek, Zuzendaritza Batzordeko kideek eta profesionalak parte hartzea. Baina **ez dugu mugatu behar dagoeneko gizarte zentrori etortzen diren pertsonetara.**

Gogoan izan behar dugu gizarte zentroen hartzaileak udalerriko adineko guztiak direla; beraz, haietan jarri behar dugu arreta, gizarte zentroan parte hartu ala ez.

Gizarte zentroan parte hartzen ez duten pertsonak erakartzea mesedegarria izango da, interesak, premiak eta gizarte errealitateak heterogeneoak izan daitezen. Prozesuan pertsona horiek aintzat hartzea **lagungarria izango da, zergatik ez duten parte hartzen jakiteko eta lan ildo egokiak aurkitzeko, gizarte zentroa udalerriko adinekoen askotariko errealitateetara egokitu dadin.**

Horrez gain, gogoetari balio erantsia emango dio gizarte zentroen kudeaketan parte hartzen duten udal teknikariek taldean parte hartzeak. Izan ere, esperientzia eta ezagutza eskain ditzakete arlo hauen inguruan: udalerriko adinekoen premia globalak, adinekoentzat dauden baliabideak eta zerbitzuak, adinekoek zuzendutako udal estrategia eta bestelako ezagutzak (esku hartze komunitarioa, gerontologia, genero ikuspegia eta abar).

Azkenik, garrantzitsua da pentsatzea komunitatean ba ote dagoen beste eragilerik, gogoetan eta definizioan parte hartzeko modukorik. Edo udalerrian jarduera bizia duen gizarte mugimendu edo elkarterik? Ikastetxeetako familia edo irakaslerik? Tokiko hainbat ekimenetako hezitzaile sozialik? Litekeena da eragile horiek taldeari ikuspegi berritzailea ematea eta inpaktu handiagoko ongizate komunitarioa sortzeko aukerak ikustea. Dena den, denbora eta gogoetak partekatu ondoren jakin ahal izango da hori horrela den.

Taldeak malgua izan behar du, irekierraza, prozesuan zehar jende gehiago sar dadin, unean uneko beharren arabera.

Presarik gabe osatu behar da, behar besteko astia hartuta; izan ere, funtsezkoa da aniztasuna eta lankidetzarako jarduera lortzea, ondorengo prozesuari begira. Lan prozesuak pertsona horien partaidetza aktiboa izango du oinarri, gogoetaren, elkarriketaren eta gizarte zentroa eraldatzeko diseinuaren bidez.


Bigarren pausoa: autodiagnostikoa egitea

Gizarte zentroaren eredua eraldatzeko interesa duen askotariko pertsona taldea osatutakoan, **«Aldaketarako autodiagnostiko tresna»** erabiltzea proposatzen dugu.

Tresna hori berariaz diseinatuta dago, udalerriko adinekoen gizarte zentroaren egungo egoerari buruzko **gogoeta sorrarazteko**, taldearen baitan. Helburua autodiagnostikoa ahalbidetzea da, eta, horrela, gizarte zentroa eraldatzeko prozesuan hobekuntza arlotzat har daitezkeen gaietan arreta jartzen laguntzea.

Horretarako, taldean egin beharreko zenbait galdera proposatzen ditu tresnak, eta termometro batzuk erabiltzen ditu, egungo egoera egoera idealetik hurbil edo urrun dagoen ikusita betetzeko.

Asmoa da alde indartsuak eta ahulak identifikatzea, eta ikustea non egin behar den indarra, aldaketari begira. Horrela, zein egoeratan zaudeten jakin ahal izango duzue, eta kasu bakoitzean zer tresna erabili behar duzuen.



Hirugarren pausoa: eraldaketarako tresnekin lan egitea

Eraldaketarako tresnak **elkarrengandik independenteak** dira, eta gai multzoetan banatuta daude, autodiagnostikoan identifikatutako hobekuntza ildoan arabera erabiltzeko.

Dena den, tresnak **osagarriak izateko** diseinatu dira, eta, beraz, nahi duenak guztiak erabili ahal izango ditu, errepikatutako edukirik aurkitu gabe.

Kasu horretan, materialak aurkezteko ordenari jarraitzea proposatzen dugu.

Sartu «aldaketarako ibilbidea» deritzon gunean eta murgildu prozesuan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO